



AZTERKETAK 28

Soldatak eta enpleguari buruzko txostena Euskal Herrian

Azterketa Bulegoak
egindakoa

2014ko MARTXOA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

 MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA

Soldatak eta enpleguari buruzko txostena

0. Sarrera	3
1. Sekula ikusi gabeko erasoak	3
a) Langabezia eta prekarietatea zeharo hazi dira	3
b) Soldata igoerak, KPIa baino askoz apalagoak	4
c) Unitateko lan-kostuen jaitsiera nabarmena	5
d) Europar Batasunean produktibitateari dagokionez txapeldun, baina ez soldatetan	5
e) Emakumeen soldatak dira apalenak	6
f) Soldatak eta enplegua arlo publikoan	6
g) Lanbidearteko Gutxieneko Soldata urria berriro izoztu dute	6
h) Enpresen etekinen eta administrazio-kontseiluen ordainsarien gorakada	7
2. Ondorio sozial eta ekonomiko larriak	8
a) Biztanleen pobretze orokorra	9
b) Gizarteko desberdintasunen gorakada	9
c) Atzeraldiak eta langabeziak okerrera egin dute	10
d) Defizit publiko handiagoa	11
e) Ongizate-estatua eraistea justifikatzen du	11
3. Botere ekonomiko, politiko eta mediatikoa, elkar hartuta soldatei eta enpleguari erasoka	12
a) Kreditua lortzeko aukera	12
b) Argindar tarifak	12
c) Zinezko arazoei ekitea baztertzen da	12
4. Alternatibak eta proposamenak	13
a) Enplegu duina sortu eta eros-ahalmena gehitzeko politikak	14
b) Gutxiengo baten mesedetan pobretzen gaituztenak agerian utzi	15
c) Lantokietan antolatu eta mobilizatu	15

Egungo krisialdiaz lan-baldintzak okertzeko baliatzen ari dira. Botere publikoak ezartzen ari diren politikek (erreforma laboralak, negoziazio kolektibokoak, arlo publikoan egiten diren murrizketak, pentsioenak, gizarte-prestazioak...), baita enpresen erabakiek ere (enplegu murrizte gogorrak, soldaten aurkako erasoak eta malgutasuna areagotzea), biztanleria gehiena pobretzea dakarte.

Politika bidegabeak ezartzen dizkigute, eta gainera nahi dute horiei aurre egin gabe geratzea. Lan-harremanen arloan banako erlaziora jotzeko saio nabarmena ari da gertatzen, langilea enpresaren aurrean bakarrik gera dadin. Badakite guri batasunak ematen digula indarra; ahulagoak garela ekintza kolektiborik gabe, eta enpresarioak aurrean defentsa kolektiborik topatzen ez badu soldatapeko langileari nahi duena eginaraz diezaiokeela. Bestalde, jarrera autoritarioa ere ageri da, mobilizazioa eta borroka kriminalizatzeko urratsak egin nahi baitira.

Agiri honek soldaten eta enpleguaren aurkako erasoak kokatu nahi du, politika horien ondorio sozial eta ekonomiko lazgarrien berri eman, eta erakutsi badaudela alternatiba errealak biztanle gehienentzat hobekuntza argia lortzeko. Halaber, kapitalaren hainbat tesi gezurtatu nahi dugu, ideologia hutsa diren aldetik, hori bai, gobernuen babesak jasotzen duten tesiak.

Halere, ez da aski jakitea gauzak horrela direla. Egungo egoeratik ateratzeko ezinbestekoa da antolatzea eta borrokatzea. Indar-erlazioa da gakoa. Gure eskubideen alde ekintza kolektiboa egiteko unea dugu, lantokietan antolatuz eta mobilizatuz. Horixe baita garaitzeko aukerarik onena.

1. SEKULA IKUSI GABEKO ERASOA

Lehiakortasuna hobetzeko aitzakiaz aberastasunaren banaketa erabat aldatu nahi da: helburua lan-errenten zatia murriztea da, enpresa- eta kapital-errenten mesedetan. Horretarako antolatu da enpleguaren eta soldaten aurkako erasoak:

a) Langabezia eta prekarietatea zeharo hazi dira

Krisialdi honetan Hego Euskal Herrian suntsitu den enplegu kopurua oso handia izan da, Europar Batasuneko beste toki batzutan baino askoz handiagoa:

- Azken bost urteotan Hego Euskal Herrian 162.300 enplegu galdu da, hots, guztira zeuden lanpostuen %13.

- Langabezia tasa 2,7 bider hazi da, eta %17,6raino iritsi da. 227.000 pertsona dago lanik gabe. Kopuru hau ez da handiagoa biztanleria aktiboa gutxitu delako, baizik lanpostu bat bilatzen zeudenak etsi dutelako eta emigrazioa gehitu egin delako. Emakumeen langabezia tasa are handiagoa da, %19koa.
- Europar Batasunean, soilik Greziak, Espainiak eta Kroaziak dute langabezia-tasa handiagoa.
- Europar Batasunean langabezia askoz gutxiago hazi da: 2008 amaierako %7,6tik egungo %10,9ra pasa da.

Bestalde, lan prekarietatea gero eta errealitate hedatuagoa da. Lan-eskubideak murriztu egin dituzte ondoz ondoko erreforma laborekin eta negoziazio kolektiboaren erreformekin. Erregistratzen diren kontratuen %94 aldi baterakoak dira. Lanaldi partzialeko kontratuak gero eta ugariagoak dira (batik bat emakumeen artean): honez gero soldatapeko langileen %14,2ak du kontratu mota hau, zeina patronalak malgutasunean doitzeko bide gisa erabiltzen baitu.


b) Soldata igoerak, KPIa baino askoz apalagoak

Azken aldion soldaten erosteko ahalmena galtzen ari da. Azken 3 urteotako KPI metatua %8,3 izan da. Espainiako INEk egiten duten Lan-Kostuen Hiruhileko Inkestaren arabera, EAEn langileko kostu osoa hiru urteotan %3,6 gehitu da, kopuru nominaletan. Nafarroan igoera askoz txikiagoa izan da, eurotan balioa %0,6 besterik ez baita hazi.

Ondorioa argia da: langile bakoitzeko soldata-kostuak prezioak baino askoz gutxiago hazi dira. Hartara, langileko kostu osoa prezioak baino 4,7 puntu gutxiago hazi da EAEn, eta 7,7 puntu gutxiago, Nafarroan.

Soldata-kostu zuzena bakarrik aintzat hartzekotan (hots, kotizazio sozialen bilakaera, kaleratze-kalteordainak eta beste faktore batzuk alde batera utzita), soldaten bilakaera are okerragoa da. Honenbestez, 2013ko hirugarren hiruhilekoan Nafarroako soldata-kostu zuzena 2010ean baino %0,1 txikiagoa zen; aldiz, EAEn %2,4 handiagoa izan zen.

Soldata-Kostu Zuzenaren eta KPIaren bilakaera Nafarroan eta EAEn. III-2010/III-2013



Iturria: Lan-Kostuen Hiruhileko Inkesta, INE

c) Unitateko lan-kostuen jaitsiera nabarmena

Unitateko lan-kostuek adierazten dute produktu unitate bat ekoizteko zenbateko lan-kostuak behar diren.

Produktu-unitateko lan-kostuak jaitsiera handia izan du, batik bat produktu bera lortzeko enplegua asko murriztu delako eta langileko lan-kostuen bilakaeraren ondorioz.

Unitateko lan-kostua 2009 eta 2012 bitartean %5,3 jaitsi da espainiar estatuan. Eurogunean bilakaera oso bestelakoa izan da, %6,2 hazi baita.

d) Europar Batasunean produktibitateari dagokionez txapeldun, baina ez soldatetan

Patronalek, komunikabide nagusiek eta botere politikoak etengabe aurkakoa errepikatuagatik ere, euskal langile-klasearen produktibitatea Europar Batasuneko lehen postuetan kokatzen da, eta soldata-kostua, aldiz, batez besteko mailatik behera:

2012ko ekitaldiko enplegatu bakoitzeko lan-produktibitatea EAEn EB-27an baino %28,5 handiagoa izan da.

Euroguneko lanorduko lan-kostua 28 euro izan da 2012 ekitaldian; aldiz, EAEn 25,2 euro zen, eta Nafarroan, 22 euro. Hots, EAeko lan-kostua Eurogunekoa baino %10 txikiagoa zen, eta Nafarroakoa, %21,4 txikiagoa.

Produktibitatea hazi egiten da enplegua suntsitu eta soldatak jaisten direnean. Beraz, produktibitate handia, parametro hauen arabera, ez da zertan ona izan, enplegu gutxiago eta soldata txarren isla izan bailiteke.

e) Emakumeen soldatak dira apalenak

Gainera, kontutan izan behar da emakumeen egoera okerragoa dela, izan ere, 2011 ekitaldian euren soldata garbia gizonezkoena baino %19,6 txikiagoa izan baitzen (azken datuak ekitaldi horri buruz ditugu). Horri esaten zaio soldata-arraila.

f) Soldatak eta enplegua arlo publikoan

Arlo publikoa eredu gisa jokatzeko ari da soldata eta enplegua murrizteko politikari dagokionez. Administrazio guztien lehentasuna defizita moztea da, eta horretarako soldata- eta enplegu-politika oso kaltegarria ari dira egiten:

- Erosteke ahalmena asko ari da jaisten, eta negoziazio kolektiboa ez errespetatzeko joera arau orokor bilakatu da, lan-baldintzak legez edo dekretuz inposatu eta iritsitako akordioak urratzen direlarik.
- Lanaldia luzatzeko erabakia inposatu egin dute, 35 ordutik gora Eusko Jaurlaritzan eta Arabako Aldundian.
- Enplegua, zuzeneko zein zeharkakoa, gutxitu egin da. Arlo publikoak langabeziaren igoeran zerikusi handia du.
- Zerbitzu publikoen kalitatea gainbehera doa eta azpikontratatzeko politika hedatzen ari da. ELAk sarri salatu izan du planak egiteko ere azpikontratatzera jotzen dela (esaterako, Eusko Jaurlaritzak enpleguari edo euskarari buruz egin dituenak).

g) Lanbidearteko Gutxieneko Soldata urria berriro izoztu dute

Rajoyren gobernuak soldaten aurkako erasoaren beste adibide bat eman digu: 2014an Lanbidearteko Gutxieneko Soldata (LAGS) berriro izoztea erabaki du, hileko 645,3 eurotan (752,85 euro, hamabi hiletan hainbanatuz gero). Zenbateko hau ez da duina, gizartea honen helburua pertsonen ongizatea bada bederen.

LAGSaren zenbatekoa espainiar estatuan Belgika, Frantzia eta beste estatu batzuetakoa baino askoz txikiagoa da. Soldata txarren lehian sartu nahi izatekotan amildegira jausiko ginateke. Ondoko koadroan ikus daitekeenez, Europar Batasuneko herrialde batzutan gutxieneko soldata oso urria da. Honetan garaitzen gaituen baten bat beti izango da.

LAGS alderatzeko koadroa
(informazioa eskaintzen duten herrialdeak) eurotan. 2013

Luxenburgo	1.874,19
Belgika	1.501,82
Herbehereak	1.477,80
Irlanda	1.461,85
Estatu Frantsesa	1.430,22
Erresuma Batua	1.189,92
Eslovenia	783,66
Estatu Espainiarra	752,85
Malta	697,42
Grezia	683,76
Portugal	565,83
Turkia	405,20
Kroazia	400,67
Polonia	368,87
Eslovakia	337,70
Hungaria	332,37
Estonia	320,00
Errepublika Txekiarra	308,30
Lituania	289,62
Letonia	284,74
Errumania	179,36
Bulgaria	158,50

Iturria: Eurostat

h) Enpresen etekinen eta administrazio-kontseiluen ordainsarien gorakada

Soldatekin zuhur jokatzeari exijitzen da, krisi egoeraren aitzakiaz, baina bitartean enpresen etekinak gorantz doaz. Hori adierazten dute burtsan kotizatzen diren enpresen datuek.

Ibex-35 indizeko enpresen Gobernu Korporatiboko urteko azken txostenak (Baloreen Merkatuko Batzorde Nazionalak argitaratua) dioenez, enpresa hauetako administrazio-kontseiluen eta goi zuzendaritzako pertsonalaren ordainsariak asko hazi dira.

Hain zuzen 2012 urtean, argitaratu den azkena, 35 enpresa horietako administrazio-kontseiluek eta goi zuzendaritzak 637,5 milioi euro jaso zuten, hots, enpresako 18,2tik gora milioi batez beste.

Administrazio-kontseiluen ordainsariei buruzko datuak ere eskandaluzkoak dira. Administrazio-kontseilu bakoitzak batez beste 7,9 milioi euro jaso du enpresa bakoitzean; beraz, kontseilari bakoitzari batez

beste 561.831 euro ordaindu zaio. Batez beste urtean 10,7 bileratan parte hartu du kontseilari bakoitzak. Hortaz, bilerako batez beste 52.438 euro jaso dute.

Bestalde, nabarmentzekoa da administrazio-kontseiluetan dauden 490 pertsonetatik 66 besterik ez direla emakumeak (%13,5), eta 35 enpresa horietako 4tan ez dagoela emakume bat ere; beste 10 kasutan emakume bana dago, kontseilu bakoitza batez beste 14 kidek osatzen duelarik.

Enpresa konkretuen datuei dagokienez, etekinik handiena jaso duten administrazio-kontseiluak honakoak izan dira: Telefónica (50,5 milioi euro, batez beste 2,8 kontseiluko kide bakoitzeko), Banco Santander (28,2 milioi, kontseilariko 1,8na milioi), Iberdrola (14,5 milioi, kontseilariko batez beste milioi 1), Abengoa (13,9 milioi, 925.800na euro kontseilukide bakoitzarentzat) eta BBVA (12,9 milioi, hots, 922.786na euro kide bakoitzeko).

Ibexeko 35 enpresetako administrazio-kontseiluen ordainsariak azken urteotan izan duten bilakaerak erakusten du soldatak eta eskubide laboralak murrizteko politika ez dietela euren buruari aplikatzen.

Honela, kontseiluen ordainsaria guztira %5,8 hazi zen azken urtean, 2011ko 260,2 milioi eurotik 2012ko 275,3 milioiraino. Kontseilari bakoitzaren batez besteko ordainsaria 2011ko 517.977 eurotik 2012ko 561.831 euroraino gehitu zen, hots, bilerako 2011n baino 5.000 euro gehiago jaso zuten 2012an (2011an bilerako 47.448 eurotik 2012ko 52.438 euroraino).

Kontseiluaren ordainsaria 2011 eta 2012 bitartean gehien honako enpresetan hazi zen: Telefónica (22,4 milioi gehiago), Iberdrola (3,8 milioi gehiago) eta Mapfre (2 milioi euro gehiago).

Soldata hauek eta kontratu blindatuak dituztenek, hain zuzen, esaten dute lan-kostuak jaitsi behar direla. Bestalde, ezin da alde batera utzi elite ekonomikoan dauden pertsona hauen eta politikaren arteko lotura.

2. ONDORIO SOZIAL ETA EKONOMIKO LARRIAK

Politika honekin areagotu egin nahi dute aberastasunaren banaketa bidegabea eta gizartearen baitako desberdintasuna. Krisiaz baliatu nahi dute soldata-errentetara doan aberastasunaren zatia ahalik gehien murrizteko. Horrela enpresen eta kapitalaren errentak hazi egiten dira. Baso komunikatuen gisako egoera dugu hau.

Politika honen ondorioak latzak dira, ikuspuntu sozialetik zein ekonomikotik. Biztanleriaren zatirik handiena pobretzea ez da gizabidezkoa. Krisitik ateratzeko ez du balio, eta gainera atzeraldia areagotu eta langabezia haztea eragiten du.

Hauek dira ondoriorik larrienak:

a) Biztanleen pobretze orokorra

Politika hauek aplikatuta pobrezia asko ari da hazten. Datuek errealitate larri bat erakusten digute, eta horrekiko erantzukizun politikoa ez dute beren gain hartu nahi, ez gobernuek, ez patronalak:

- Nafarroan 50.000 pertsona, biztanleriaren %8, pobrezia larrian dago, eta hileko 454tik behera eurekin bizi behar du.
- Pobrezian jausteko arriskua dagoela esaten da etxe batean oinarritzko beharrianak asetzeko diru-sarrera nahikorik ez badago. Pobrezian jausteko arriskuan dauden etxeetan 157.000tik gora lagun bizi da (biztanleen %7,3), hots, kopurua 2008 eta 2012 bitartean EAEn %77,9 gehitu da. Izan den mailarik altuena da duela 25 urtetik hona, errealitate hau neurtzen hasi zen urtetik hasita alegia.
- Dagoeneko 100.000tik gora lagun bizi da jateko arazo larriak dauden etxeetan; hauetako 46.000 gosea pasa izan den etxeetan bizi da, hots, 2008 urtean baino %116,8 gehiago. Kopuru hau ere sekula ikusi gabea zen.
- Pobreziak eragin handiagoa du emakumeen artean, batik bat emakumeak guraso bakar gisa dauden etxeetan.
- Caritasi eta Elikagaien Bankuari egindako eskariak %40 gehitu dira (35.000tik gora familia zerbitzu honetara jo beharrean dago).
- Enpleguak ez du pobre izatetik salbatzen. Gero eta langile gehiagok, batez ere emakumeek, soldata kaskarreko lan batean dihardute eta, horrenbestez, pobrezia maila azpitik daude. Prekarietatearen bitartez soldata miserableak hedatzeko politika (aldi baterako enplegua, lanaldi partziala, azpikontratazioa...) oso injustua da, eta langabezia tasak mozorrotzeko helburua ere badu.

b) Gizarteko desberdintasunen gorakada

Desberdintasuna areagotzen ari da; fenomeno hau ELGEk eta NMFk berak aitortu dute, beraiek izanik soldaten eta enpleguaren aurkako politikak bultzatzen erakundeetako batzuk. ELGEren arabera, aberats eta pobreen arteko aldea azken 30 urteotan hazi egin da, etengabe gainera. Gobernuarteko erakunde honek aitortzen du aztertu diren azken hiru urteetan desberdintasuna aurreko hamabi urteetan baino areago hazi dela. Beste ondorio batzuk ere atera daitezke:

- Hiru urte horietan desberdintasuna areago hazi da gizarte-transferentzien birbanatze efektua alde batera utziz gero. Gehien estatu espainiarrean hazi zen (%6), baita Irlandan ere (%7). Espainiar estatua ELGEko 34 estatu kideen artean desberdintasunari dagokionez jada zortzigarrena da.

- Espainiar estatuan batez besteko errenta hiru urte horietan %3 jaitsi zen. Biztanleriako %10 pobreenak zuen batez besteko errenta %14 jausi zen.
- Gauza jakina da desberdintasunak goranzko joerari eutsiko diola doikuntza politikoeekin jarraituz gero.

Argi dago erreformak helburu horretara iristeko egin direla. Desberdintasunak areagotzeak ez ditu gobernuak inola ere kezkatzen.

c) Atzeraldiak eta langabeziak okerrera egin dute

Sinestarazi nahi digute politika horiek “errezeta mingarriak” direla, ez dagoela “onartu beste aukerarik krisitik irteteko”, lehiakortasuna hobetzen dutela eta “ekonomia indartzeko oinarriak ezartzen dituztela”. Horrek, ordea, ez dauka errealitatearekin zerikusirik:

- Gainera, enplegua suntsituz eta langile-klasearen (enplegua, langabezia prestazioa, pentsioa zein beste gizarte-prestazioren bat dutenak) erosteko ahalmena murriztuta kontsumoari kalte egiten zaio, barne-eskariaren osagairik garrantzitsuenari alegia. Suizidio ekonomikoa da pentsa arazi nahi izatea irtenbidea esportazioan dagoela.
- Enpleguaren eta soldaten bilakaera horrek ahuldu egiten du ekonomia erreala, ekonomia guztiaren erdigunea. Begi bistakoa da “barne-debaluazio” politika hauek (soldatak jaitsi araztea) porrot egin dutela. Gainera, Europar Batasun guztian ezarri nahi denez, politika honekin inork ez du irabazten, eta bere eragin kaltegarria areagotu egiten da oro har.
- Lan-kostuak jaisteko aukerak ez du amairik, eta beraren ondorioz patronala eskean dago etengabe. Berrikuntza edo ikerketari esker lehiatzeko gaitasuna hobetzen saiatu ordez, espainiar estatuko eredia (zeinarekin bat egiten baitute EAEko eta Nafarroako patronalek) honakoa da: erreforma gehiago, lan-eskubide gutxiago, etekinak gehitze aldera. Eredu honek ez dauka etorkizunik.

Horrenbestez, gainbeherako espiral geldiezin bat sortzen da; soldatari erasanez krisi ekonomikoa areagotzen da; dinamika honekin erabat eten beharra dago krisitik bidezko irtenbide bat izango bada.

- Ebidentziak baieztapen hori gezurtatu egiten du. Doikuntza politika horiek gogorren ezarri diren estatuetan (Grezia, espainiar estatua, Portugal, Irlanda...) ondorioa atzeraldi handiagoa eta langabezia areagotua izan da. Hego Euskal Herriko edota estatuko BPGd-a %5,5 jaitsi da, eta aldiz, eurogunekoa ez da hainbeste murriztu, hain zuzen %1,5. Beraz, argi geratzen da ustezko arau hori -soldatak jaitsita lehiakortasuna hobetu eta, bide batez, ekonomia indartzen dela-faltsua dela; izan ere, kontrakoa gertatu da: lan-kostuak jaistearekin batera, langabezia eta atzeraldia indartu dira. Aukera politiko hau

zorrotzen ezarri den lekuetan biztanleria pobretzea beste emaitzarik ez da lortu.

d) Defizit publiko handiagoa

Politika horiek zuritu nahian beste argudio bat erabili ohi dute: beharrezkoak omen dira defizit publikoa murrizteko. Bada, soldatak murrizteko eta enplegua suntsitzeko politikek gutxitu ordez defizit publikoa puztu egiten dute, hainbat bidetatik:

- Enplegua suntsitu eta soldatak jaitsita, erosteko ahalmena galtzen delarik, Gizarte-Segurantzako diru-sarrerak zeharo gutxitzen dira, kotizazio sozialak beherantz egiten baitute. Gizarte-Segurantzako diru-sarrerak gehitzeko bidea kalitatezko enplegua sortzea da, eta soldatak KPlz gaindi igotzea. Hau are nabarmenago geratu da, inondik ere, erabaki den pentsioen azken erreformaren argitan: kotizazioak jaitsiz gero, pentsioen erosteko ahalmena galduko da.
- Enplegu eta soldatak gutxituta ogasunen diru-sarrerak txikiagoak dira. Hau zuzenean bi bidetatik gertatzen da, eta beste hainbat modutara, zeharka. Zuzenean, PFEZ bidezko diru-sarrerak gutxitzen direlako, 2013an gertatu den moduan, baita BEZ eta zeharkako beste zergen jaitsiera medio, kontsumoa goitik behera datorrelako. Zeharka, kutxa publikoetara bideratzen diren gainerako zergetan ere eragina duelako, egoera ekonomikoaren baitan. Horrenbestez, diru-sarrera publikoak gehituko badira ezinbestekoa da kalitatezko enplegua, eta erosteko ahalmena irabaztea.
- Langabeziarekin batera gizarte-prestazioetako gastua ere gehitu egiten da. Langabezia tasa igotzean jende gehiagori ordaindu behar zaio langabezia prestazioa. Langabezia eta pobrezia haztean beste gizarte-prestazioetarako ere baliabide gehiago jarri behar dira. Gizarte-prestazioetako gastua murrizteko ez dira haiek jaitsi behar, ezta jasotzeko eskubidea eragotzi behar, kalitatezko enplegua sortu baizik.

e) Ongizate-estatua eraistea justifikatzen du

Krisiaz baliatzen dira ongizate-estatua eraisteko (erreforma laboralak, negozioazio kolektibokoak, pentsioak, gizarte-prestazioak, pribatizazioak, arlo publikoan egiten diren murrizketak, osasun, hezkuntza edota etxebizitzan...).

Horrekin guztiarekin taxutzen den gizarte-ereduan gehiengoa pobretu egiten da, eta bere esku gero eta zerbitzu publiko gutxiago jartzen da. Bitartean, beharrian sozialak asetzeko behar diren jarduera guztiak (pentsioetatik hasi eta gizarte-zerbitzuetaraino) negozioa egiteko eta gutxi batzuk aberasteko aukera bilakatzen dira.

Beraz, diru-sarrera publikoak hein handian enpleguaren eta soldaten menpeko dira. Soldata kostu bat baino askoz gehiago da. Enplegua eta soldata ditugu ongizate-estatu mantentzeko edo garatzeko oinarria.

3. BOTERE EKONOMIKO, POLITIKO ETA MEDIATIKOA, ELKAR HARTUTA SOLDATEI ETA ENPLEGUARI ERASOKA

Ikusi dugunez, gure arazoa ez datza soldaten lehiakortasunean. Alabaina, badira beste arazo larri batzuk, baina hauek ez daude politikaren lehentasunen artean.

a) Kreditua lortzeko aukera

Arazo hauen adibide argia da kreditua lortzeko zailtasuna, enpresei oro har eragiten diena, baina areago enpresa txiki eta ertainei. Errealitate hau agerian uzten du duela gutxi Eusko Jaurlaritzak egin duen Lan Merkatuaren Erroldak:

- Industriako lantegien %25ak arazoak dituzte, nolabaitekoak edo larriak, finantziarioa lortzeko.
- Honelako arazoak dituen 3 enpresa industrialetatik batek baztertu egiten du mailegua finantza-erakunderen bati eskatzeko aukera. Egiten diren 10 kreditu eskaritik 7 ukatu egiten dira.

Gainera, enpresek espainiar estatuan ordaindu behar dituzten interes-tasak beste estatu batzutan baino handiagoak dira (esaterako, ETEek batez beste %5,2 ordaintzen dute, eta Alemanian, aldiz, %3,7, Europako Banku Zentralaren datuen arabera).

Jarduera produktiboetarako kredituaren egoera larria sortu da finantza-erakundeek batik bat espekulaziora jo dutelako. Honetarako, gainera, politikaren bedeinkapena izan dute, eta areago, gobernu batzuk horretara bultzatzen dituzte, bankuen jokabide espekulatiboa erraztuta. Bankuetara baliabide publiko ugari transferitu da, eta horrek defizit eta zor publiko maila handia ekarri du. Hots, finantza-erakundeen zorra administrazioetara transferitu da, zor publikora.

b) Argindar tarifak

Aipatu ohi ez den beste kontu bat argindar-tarifen igoera itzela da. Enpresa elektrikoek, esaterako Iberdrolak edo Endesak, etekin izugarriak dituzte, eta beren zuzendariei ikuspuntu sozialetik onartezinak diren ordainsariak ematen dizkiete; herritarrok eta enpresek, berriz, Europar Batasuneko preziorik altuenetakoak ordaindu behar ditugu, azken urteotan batez besteko maila baino askoz gehiago hazi diren tarifak.

c) Zinezko arazoei ekitea baztertzen da

Patronalak baztertu egin du arreta enpresen zinezko arazoetan jartzeko aukera. Agian enpresa elektrikoak eta bankuak bere elkarteko kide direlako. Horren ordean lan-baldintzei, enpleguari eta soldatei zuzenean eraso egiten die, baita sindikalismo jakin bati ere, hain zuzen ezarri nahi diguten pobretze politikari men egiten ez dion sindikalismoari.

Bestalde, patronala ez dago bakarrik. Babes instituzionala badu (espainiar gobernuak, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernuak...), baita komunikabide nagusia ere (publikoak nahiz pribatu gehientsuenak). Komunikazio talde asko enpresa handien eskuetan daude, eta euren zerbitzura. Beste batzuk publizitateari esker daude kontrolpean. Horrela saiatzen dira mezu alternatiboa iristea galarazten.

Soldaten kontrako ekinaldi jarraitu honetan bat eginda jokatzeko dute patronalak, komunikabideek eta botere politikoak. Zergatik egiten dute hau? Pobretu nahi gaituztelako, enpresen etekinak gehitze aldera. Ez da ELA hau esaten duen bakarra. Enpresariak ere, hedabideetan diskurtso apur bat salgarriagoa egin nahi duten arren, interes orokorraren hobe beharrez ari direla esanez, batzutan mozorroa kendu eta beren benetako helburuak agerian uzten dituzte.

Honen adibide argia dugu "España emprende y exporta" txostena, Lehiakortasunerako Enpresen Kontseiluak plazaratu duena; honen kide dira hainbat enpresa handiren buruak (Iberdrola, Telefónica, BBVA, Banco Santander, Repsol, Inditex, Ferrovial, etab.). Txostenean hau adierazten da:

- Administrazioei exijitzen diete enpresek eskatzen dituzten politikei eusteko, "Espainia lehiakorragoa" egiten jarrai ahal dadin. Horixe egiten du PPK.
- 2008 urtetik hona gertatu den unitateko lan-kostuen jaitsiera handia aipatzen da, eta Alemanian, Frantzian edo Italian gertatu denarekin kontrajartzen du.
- Espero dute joera honek 2014an ere jarraitzea.
- Azaltzen dute lan-kostuak murriztearen ondorioa -propio bilatzen dutena-, enplegatuko etekinen igoera itzela dela.
- Ondorioztatzen dute espainiar estatuan enplegatuko lan-kostuak txikiagoak direla, eta etekinak, handiagoak.

Argiago ezin esan. Soldatak jaitea eta enplegua albat gehien murriztea da etekinak ugaltzeko enpresen apustua. Langabezia baliatzen dira beldurra hedatzeko eta beren errezetak ezartzen jarraitzeko; negozioak kolektiboak blokeatzeko; kaleratzeak egiteko edota kontratuak ez berritzeko; soldata-kostuak murriztu eta malgutasun laboral handiagoa izatearren xantxia egiteko. Beterie helburu batekin, irabaziak gehitzea. Besterik ez.

4. ALTERNATIBAK ETA PROPOSAMENAK

Enpleguari eta soldatei egiten zaien eraso hau bidegabea da, eta agiri honetan aipatu diren ondorioak dakartza. ELAk aldarrikatzen du premiazkoa dela politika hauek baztertzea eta norabidez zeharo aldatzea. Horretarako honako alternatiba eta proposamenak luzatzen ditugu:

a) Enplegu duina sortu eta eros-ahalmena gehitzeko politikak

2013ko maiatzean ELAk enplegu duinaren aldeko proposamenak biltzen zituen agiri bat egin zuen. Haiak berretsi egiten ditugu. Txosten honetan aipatzen denaren harira, hauek dira nabarmendu beharrekoak:

- *KPlz gairidiko soldata igoerak.* Soldatak KPlz gairidigota hainbat ondorio lortzen da: Batetik, ezinbestekoa da igoera, langile askok soldata maila oso apala duela eta horrek bizimodu duina galarazten diela jakinik. Bestetik, soldaten erosteko ahalmena hobetuta aberastasunaren banaketa bidezkoa iristen da. Azkenik, enplegua sortzeko beharrezko den politikaren parte ere bada, hau ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko ahalmenarekin lotuta baitago.
- *Estaldura sozial duina.* Gizarte-prestazioetatik ere gauza bera esan liteke. Horrenbestez, beharrezkoa da soldaten eta gizarte-prestazioen erosteko ahalmena hobetzea; ikuspuntu sozialetik bidezkoa da, eta ekonomikotik ere eragin positiboak ditu.
- *Gutxieneko soldata duina.* Lanbidearteko Gutxieneko Soldata (LAGS) lan- eta bizi-baldintza duinak bermatzeko tresna izan beharko litzateke. LAGSaren zenbatekoak beste leku batzutan (esaterako, Frantzia, Herbehereetan) dagoen mailan egon beharko luke.
- *Lanaldi laburragoa, soldata jaitsierarik gabe.* Patronalak enplegua suntsitu eta aldi berean lanaldia luzatu nahi du. Lanaldi luzeagoa, ordea, enpleguaren kalterako da. Alderantziz, lanaldia laburtzarekin batera, soldata ez jaistekotan, enplegu gehiago sortzea eta langabezia gutxitzea eragin daiteke. Lanaldia 35 ordura murriztea, soldatari eutsita, enplegua sortzeko politika da, aberastasunaren bidezko banaketan oinarritua.
- *Aurrekontu- eta zerga-politikak errotik aldatzea.* Doitzeko eta murrizteko politikarekin langabezia eta atzeraldia areagotzen ari dira. Politika hauek bertan behera uztea ezinbestekoa da, ELAk hainbat azterketa eta proposamenetan eskatu izan duen moduan.
- *Arlo publikoa garatzea, batik bat Ongizate-Estatuarekin lotutako zerbitzuei dagokienez.* Enplegu publikoa gehitu beharra dago osasungintzan, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan, garraioan, etab.
- *Enplegu berdeen sustapena.* Funtsezkoa da ikuspuntu ekonomiko, sozial eta ekologikotik jarduera iraunkorrak sustatzea, egungo produkzio, banaketa eta kontsumo erdua aldatzeko. Enplegua

sortzeko potentzial handia dago hainbat sektoretan: energia berriztagarriak, hondakinen kudeaketa eta tratamendua, lurzoruen berreskurapena, etab.

Azterketa zehatzagoa aipatutako agirian dago jasota.

b) Gutxiengo baten mesedetan pobretzen gaituztenak agerian utzi

Aipatu beharreko kontua da gutxiengo baten mesedetan agintzen dutenen erantzukizuna, pobretzeko politika hori gehiengoari ezartzen baitiote. Patronalak esaten duenean langileen eskubideei erasoka jarraitu behar dela edota sindikatuak paretik kendu beharra dagoela gauza bat dute gogoan: Lehiakortasunerako Enpresen Kontseiluaren xedea, etekinak soldaten lepotik gehitzea alegia.

Patronal hau gurean Confebask (SEA, Cebek, Adeg) eta CEN dira. Erakunde hauek diru publikoari esker bizi dira; funts publikoak (prestakuntza, politika industrial, etab.) beren kupulen interesetan erabiltzen dituzte; inoiz egiaztatu gabeko ordezkariak daukate, eta eginkizun erreakzionario bat betetzen dute, eskubide laboral eta sozialak suntsitzea galdegiten dutelarik. Badakite botere politikoa euren esanetara dagoela. Areago, esan izan dute Auzitegi Konstituzionaleko eta Auzitegi Goreneko botoak lotuta dituztela. Horregatik ez dute negoziatu nahi; horregatik jokatzeko dute hainitsu.

Bestalde, gobernuak, enplegatzaile diren aldetik, lanpostuak suntsitzen ari dira, zerbitzu publikoen kalitatea okertzen dute eta administrazioaren zerbitzutan dauden langileak txirotzen ari dira, patronal pribatuarentzat eredu ezarriaz.

Hortaz, ezinbestekoa da agerian uztea norena den azken hamarkadetako aberastasun transferentziarik handienaren ardura (lan-errentetara doan zatia murriztu eta enpresa- nahiz kapital-errentetara bideratzen dena gehituaz). Krisia egundoko aitzakia bihurtu da, eta norabide horretan doazen era guztietako erabakiak zurrizko erabiltzen dute.

Botere ekonomikoa, finantzetakoa, mediatikoa eta politikoa bide horretatik jarraitzeko ados daudenez, eredu horri aurre egin nahi dion sindikalismoak ezin dio babesik eman, ezta “elkarrizketa soziala” landu behar delako tesirik onartu ere. Ez dago elkarrizketa sozialik. Gai bakarra dago mahai gainean, eskubide laboral eta sozialak murrizteko inposizioa, lege- zein enpresa-esparruan. Bi bide ditugu aukeran, eta kontrajarritza daude: botere horiei aurre egitea ala elkarrizketa sozialaren irudi faltsu bat ematea. ELAk lehena aukeratu du.

c) Lantokietan antolatu eta mobilizatu

Gauza injustuak eta larriak ari dira gertatzen. Baina ez dute ildo horretatik atera nahi. Bizi- eta lan-baldintzen gainbehera geldiarazteko, salaketa ez

ezik konpromiso kolektiboa behar dugu, zerbait egiteko prest gaudela eta gauzak aldatzeko borrokatuko garela bermatzea. Erreforma laboralek eta negoziazio kolektibokoek (edota arlo publikoan lan-baldintzak arautzen dituzten dekretuek) sortu duten egoeran antolatu beharra inoiz baino nabarmenagoa da. Indar-erlazioa hobetzeko hauek dira bideak:

- *Lantokietan afiliatu eta antolatzea.* Lantokietako antolakuntza sindikala funtsezko osagaia da langileen interesak defenditzeko. Tresna horrek emango digu baldintza hobekak izateko aukera enpleguaren, soldaten eta lan-baldintzen alde egiteko, horiek enpresaburuaren alde-bakarreko borondatearen menpe egon ez daitezten. Lan-baldintzak lantoki bakoitzeko errealitate sindikalaren arabekoak izango dira. Erronka antolakuntzan daukagu. Afiliazioak bermatzen du botere ekonomiko eta politikoarekiko autonomia sindikala, eta negoziazio kolektiboa eta ekintza sindikala antolatzeko aukera ematen du.
- *Mobilizazio sindikal eta soziala.* Mobilizazio sindikal eta soziala da bide bakarra lan-baldintzak hobetzeko, enpleguaren alde egiteko edota aurrekontu- eta zerga-politikak alda daitezela exijitzeko. Mobilizatu ezean, eguna joan eguna etorri are ahulago izango gara botere ekonomikoaren aurrean.
- *Ekintza kolektiboaren eta mobilizazioaren balioa aintzat hartu.* Interes kontrajarriak betidanik izan dira. Ez ote da horren adibide gordina esatea soldatak jaitsi behar direla etekinak handitzeko? Haatik, gu horrekin ez gaude ados. ELAk enplegu gehiago eta soldata handiagoa nahi du, eta ez da ezer gertatzen horren ondorioz enpresen etekinak txikiagoak badira. Interes talka bat da hau. Ekintza kolektiboa, ekintza sindikala, erreibindikazioa edota lan- eta bizi-baldintzak hobetzeko mobilizazioa eta borroka deskalifikatu nahi dutenak horretarako arrazoi sinple bat dute: pozik daude gauzak zertan diren. Baina ELA ez dago ados. Horregatik legitimatu behar dugu ekintza kolektiboaren eta mobilizazioaren balioa langile-klasearen interesak defenditzeko.

